

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko AZAROA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,8 igo dira 2024ko azaroan


Aurreko hilabetearen alderatuta, salmentak % 0,6 jaitsi dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko azaroan, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak zuzenduta, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,8 igo dira aurreko urteko hil beraren aldean.

Azaroko salmentak, aurreko hilarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta dagozkion urtaro-eraginak atera ondoren, % 0,6 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmentak % 0,7 jaitsi dira hiletik hilerako balioetan *Elikaduran*. *Gainerako produktuen* sektorean, berriz, aurreko hilabetearekin alderatuta, jaitsiera % 0,5ekoa izan da. Urtetik urterako balioetan, 2023ko azarotik 2024ko azarora, salmenten bilakaera positiboa izan da *Elikaduran*, eta % 2,8 igo dira. *Gainerako produktuen* sektorean, aldiz, salmentak % 0,2 jaitsi dira aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,8	-0,6	0,5
Araba/Álava	1,1	-0,1	0,4
Bizkaia	2,8	-0,6	0,5
Gipuzkoa	0,2	-0,8	0,4
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	2,8	-0,7	0,8
Gainerako produktuak	-0,2	-0,5	-0,3
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	1,4	0,3	1,6

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarmiletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Abenduaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Lurralde historikoen arabera, 2024ko azaroan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak, urtetik urterako balioetan, % 2,8 igo dira Bizkaian, % 1,1 Araban eta % 0,2 Gipuzkoan.

Aurreko hilarekin alderatuta, berriz, salmentek % 0,8 egin dute behera Gipuzkoan, % 0,6 Bizkaian eta % 0,1 Araban.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako **langile-kopurua** % 1,4 igo da 2023ko azaroarekin alderatuta. Hilan arteko balioan, langileen indizea % 0,3 igo da.

2024ko **lehenengo hamaika hilabeteetan metatutako aldian**, salmentek % 0,5 egin dute gora Euskal AE osoan. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan eta Araban % 0,4 igo dira eta Bizkaian, berriz % 0,5.

Sektoreen arabera, *Elikaduran* urte hasieratik salmenten metatuak % 0,8ko igoera izan du, eta *Gainerako produktuetan*, berriz, % 0,3ko jaitsiera.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak, egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtaroen eraginik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 96,97ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62